OU_112_25

2024JASA0006

JARDUERA SAILKATUAREN JARDUERA LIZENTZIA
INGURUMEN-INPAKATUAREN EBALUAZIO SINPLIFIKATUAREN TRAMITAZIOA

Enpresa: K-NORTE 2018, SL (B-75210625)

Helbidea: Epele bailara, 37

Jarduera: Isotankeen biltegia (Produktu kimikoen biltegia)

Kontuan hartu beharrekoak

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak dioena
- Isotankeen biltegi- jardueraren proiektu teknikoa
- Isotankeen biltegi-jardueraren Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Sinplifikatuaren dokumentua
- Isotankeen biltegi-jardueraren proiektu teknikoaren I eranskina

Aztertutakoaren arabera jarduera 10/2021eko Legearen 1C eranskinaren 7. puntuan deskribatzen den jardueraren parekoa da: "Biltegiratzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak edo instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sukoi gisa katalogatuta dauden produktuak eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, ganierako lurzoruetan)". Beraz, **Jarduera lizentzia behar duen jarduera sailkatua**

Halaber,10 tona baino gehiago material biltegiratzea aurreikusten delako 10/2021 legearen eranskinaren II. .E.6.c- zehazten diren jardueren parekoa da (*Petrolio-produktuak, produktu kimikoak eta petrokimikoak biltegian gordetzeko industria-instalazioak, 100 metro kubikoko edo gehiagoko edukiera baldin badute*) eta, horregatik **Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egitea** beharrezkoa da.

Horregatik guztiagatik, Jarduera sailkatuaren lizentzia behar duen jarduera izateaz gain, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar duen jarduera ere bada.

Beraz, Eusko Juarlaritzara bideratu behar da espedientea eta, Ingurumen Administrazioaren Zizendaritzari eskatu behar zaio Ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko.

[redacted]

Olatz Urrutibeaskoa Landa
Ingurumen Unitateko arduraduna

Hernani, 2025eko irailaren 2a

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 56 – e-mail: hhz@hernani.eus